



Osakidetza

DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEA
HOSPITAL UNIVERSITARIO DONOSTIA

NOLA ERABILI MEDIKAMENTUAK SEGURTASUNEZ

Hauekin lankidetzan:



Instituto
para el Uso Seguro
de los Medicamentos

www.ismp-espana.org



Informatu!

Ezagut itzazu ondo hartzen dituzun medikamentuak, errakuntzak saihesteko egin daitekeen onena da eta

Medikamentuak erabiltzen direnean, osasuna kaltetu dezaketen okerrak gertatu daitezke batzuetan. Hutsegite hauek ospitaleetan gertatu daitezke, osasun-zen-troetan, farmazietan edo zeure etxean bertan.

Huts hauek saihesteko aholkurik onena informazio egokia izatea da eta erabiltzen dituzun medikamentuak ondo ezagutzea. Hartzen ari zaren botikak zenbat eta hobeto ezagutu, orduan eta aukera gutxiago errakuntzak egiteko. Horregatik medikuei, farmazialariei eta erizainei aldiro informazioa eskatu behar diezu.

Artatzen zaituzten osasun langileek zure osasunaren alde lan egiten dute, baina ez ahaztu **zeu zarela** medikamentuak zuzen eta agindu zaizun moduan hartzeko ardura duena.

Galdetu edozein zalantza. Zure osasuna da, zure bizia da!

Etxean erabiltzen dituzun medikamentuen zerrenda bat egin

Etxean

Hartzen ari zaren botiken zerrenda egin (oso erabilgarria izan dakizuke hemen jarri dugun tratamendu-orria). Bertan apuntatu: medikamentuen **izenak eta dosiak, noiz** hartu behar dituzun eta **noiz arte**, eta tratamenduan zehar ardura berezirik izan behar ote duzun.

Komeni da apuntatzea, gainera, medikamentu edo jakiekiko **alergiarik** duzun eta, hala bada, zein. Bitaminak, kaltzioa... eta errezetarik gabeko medikamenturik hartuz gero, apuntatu ere (sendabelarrak barne).

Eskatu mediku edo farmazialariaren laguntza, medikamentuen zerrenda egin ahal izateko.

Botikak aldatuz gero, zerrenda berritu.

Medikuaren kontsultan

Familiako medikuarengana zoazenean, **eraman zerrenda**, baita ere dentista edo espezialistarengana joanez gero (bereziki mediku batzuen artean artatu behar zaituzten kasuetan). Denek jakin behar dute besteek zer errezetatu dizuten.

Mediku batek botika berri bat errezetatzen dizunean, beti galdetu zertarako den, nola hartu behar duzun, noiz arte eta kontrolik behar ote duzun.

Errezetarekin farmaziara zoazenean ere, galdetu botikariari zure zalantzak hartzen ari zaren medikamentuez.

Ospitalean

Ospitalera joatean eraman **medikamentuen zerrenda**, baita ontziak ere; mediku espezialistek ere jakin behar dute zer hartzen ari zaren.

Ospitaleko alta txostena jasotzean, begiratu zeure medikazioan aldaketarik dagoen, eta, horrela bada, galdetu medikuari, erizainari edo farmazialariari.


Gainera

- Medikamentu berri bat agintzen dizutenean, arretaz **irakurri prospektua**: zertarako den, ardura berezirik izan behar ote duzun, etab. Gorde prospektua medikamentuarekin batera jatorrizko ontzian eta irakurri, zalantzarik izanez gero, jarraibideak arretaz.
- **Konprobatu beti medikamentuaren ontzia eta etiketa**, ziurtatzeko erreze-tan jarritakoa eta farmazian emandakoa berbera dela; egiaztatu izena, dosia, aurkezpena, etab.
- **Ez hartu inoiz zure kasa beste pertsona bat hartzen ari den medikamen-turik**; ez dakizu zure medikazioaren efikazia gutxiagotu dezakeen, ez eta zuretzako dosia egokia den, edo alergikoa izan zaitezkeen.
- Hartzen ari zaren medikamentua **ondo ikusten duzula egiaztatu ezazu**: beharrezkoa bada, **jarri betaurrekoak eta piztu argia**. Kontuan izan ontzi eta medikamentu askoren forma eta koloreak antzekoak direla.
- Medikazioa hartzeko ordutegia zorrotz bete behar da. Hartualdi bat ahaztuz gero, itxoin hurrengo hartualdiko ordua iritsi arte. **EZ HARTU DOSI BIKOITZA**.
- Ez zatitu, ireki eta birrindu konprimatuak edo kapsulak lehenago egiaztatu gabe, prospektuaren jarraibideak irakurrita, hori dela egin beharrekoa.
- Medikamentu likidoak hartzeko, ontzian bertan datorren koilara edo dosifikatzailea bakarrik erabili. Beste koilara-motak (zopa edo kafekoa) erabiliz gero, dosiaren errakuntzak gerta daitezke, baita ere beste medikamentu baten dosifikatzaile edo koilara erabiliz gero.
- **Medikamentuak gorde jatorrizko ontzietan**. Saihestuko duzu horrela antzeko medikamentuak nahastea.
- **Ez gorde botikarik sukaldean, komunean eta argia zuzenean ematen duen tokietan**; beroak, hezetasunak eta argiak aldatu ditzakete medikamentuen efikazia eta segurtasuna.
- **Ez nahasi gordeleku berean pertsonen medikamentuak eta etxeko animalienak**. Ez gorde medikamentuak etxeko garbiketako produktuekin batera.
- **Ez gorde higiene pertsonaleko produktuekin batera** krema eta pomada formako medikamentuak. Nahasteak ondorio larriak eragin litzake.

HOJA DE TRATAMIENTO DEL PACIENTE

DONOSTIA UNIVERSITATE OSPITALIA
HOSPITAL UNIVERSITARIO DONOSTIA

Hauekin lankidetzan /



www.ismp-espana.org

[illegible]

MEDIKAMENTUA Izena eta dosia MEDICAMENTO Nombre y dosis									Iraupena / Oharrak Duración / Observaciones
	Jaikitzean	Gosaria	Bazkaria		Arratsalde	Afaria		Oheratzerakoan	
	Al levantarse	Desayuno	Comida		Por la tarde	Cena		Al acostarse	
		1 ordu lehenago 1 hora antes			1 ordu lehenago 1 hora antes				

Beste ohar batzuk /

Otras observaciones:

.....

Alergiak / Alergias:

.....